



STARTinnova 2017

NOGE

NAIARA ABAD- ENDIKA DELGADO- GOIZANE ETXEBARRIA- XABIER OCEJA

AURKEZPENA:

Gu Goizane, Endika, Xabier eta Naiara, proiektu honen sortzaileak gara. Hainbat ideia izan ditugu esku artean baina hau izan da guretzako onena: eraikin bat erostea pentsatu dugu eta bertan, hainbat lokal edo apartamentu alokatzea adingabekoentzako. Guk Durangoko auzokideen onerako gogoan izan ditugu hainbat faktore garrantzitsuak dirala haientzat: ez kexatzeko zaratagatik ezta kutsadurarengatik ere ez. Eraikin hori Durangoko kanpoaldean erostea erabaki dugu.. eraikin hau erostea idea ona izango litzatekela pentsatu genuen, uste dugulako adingabekoak neguan edota udan, babes gabe daudelako eta arrakastatsua izango litzatekela beraientzat.

BALIO PROPOSAMENA

Gaur egun, adingabeok, negua iristen denean, zailtasunak dituzte leku bero edota eroso batean izateko, eta horren ondorioz, lokal bat alokatzea erabakitzen dute. Legeak zailtasun handiak jartzen dizkiete adingabeok direlako eta orduan, gurasoek parte hartu behar dute dokumentuak (kontratuak, lizentzia eta fidantza ordaintzeko bankuan) sinatzeko eta jabearekin harremanetan egoteko.



Zailtasunak dituzte lokalak hartzeko eta bertan, gu sartzen gara laguntzeko prest eta zailtasunak errazteko, guk emandako produktuekin.

Guk hainbat ideia izan ditugu esku artean baina proposamenik onena hau



dela uste dugu NOGE taldeko buruok. Gure proposamena hau da: Durangon, eraikin bat sortu solairu askorekin eta solairuetan, lokalak edo gelak adingabeentzako eraiki gela bakoitzean komun bat eta adingabeentzako lokaleko behar nahi guztiak egotea.